

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Eskistoa, hainbat lekutan erabiltzen den gas ezezaguna

EUSKAL HERRIKO etxeetan erretzen dugun gasa Errusiatik eta Ipar Afrikatik datorriku, eta gas horren jatorria erregai fosilen bera dela esan dezakegu. AEBetan, aldiz, erabiltzen den gasak, eskistogasak, oso gutxi ezagutzen den jatorria du. Gai honetaz luze-zabal mintzatu ginen orain dela hilabete batzuk Net Hurbil atalean (ARGIA, 2.260. zbkia.).



Eskistoa.

Eskistoa harri mota bat da eta munduko leku askotan topa daiteke lur azpian. Bertatik gasa ateratzeko, harria bihotzeraino zulatu ondoren ura eta hainbat katalizatzaile sartzen zaizkio. Esan bezala, AEBetan erabiltzen den gas gehienaren jatorria da eskistoa; European, Polonian eta Frantzian ere kantitate handiak topatu dituzte. Euskal Herrian, Bermeotik iparraldera, hogeik kilometroko distantzian, kopuru handiak daude ustez. Astetik atera gero eta herrialde gehiagok aurkitzen dituzte gas mota horren putzuak.

Eskistoaren erabilera areagotu ahala, ingurumenarekiko kezka ere handitu egin da eta batez ere, gasa ateratzen den inguruetak ur-putzu edangarriekoa. Frantzian, adibidez, Parlamentuan erabakitzen ari dira ustiapenari baimena eman ala debekatu. Antza, ustiapen-guneetatik hurbil dauden ur-putzu edangarrietako metano kontzentrazioa normala baino 100 aldiz handiagoa da. Eta ez dakigu oraindik hain kontzentrazio handiak zer eragin izan dezakeen gizakion osasunean.

Fukushima: isiltasun fasea hasi da

HILABETEZ egunero eman izan ziguten Fukushiman gertatzen ari zenaren berri. Orain, aldiz, astean behin-edo iristen zaizkigu hango albisteak. Hel-tzen zaigun informazio horrek baieztatu egiten du orrialde hauetan hasieratik darabilgun hipotesia, hots, Fukushimako egoera kontrolaezina dela eta luzerakoa izateaz gain Japoniako eta inguruko lurren eta biztanleen egoerak edozein unetan okerrera egin dezakeela. Azken aldi honetan aile-gatzen diren informazio-tanten arabera errektore gehieneko egoera ezin txarragoa dela ziurta daiteke, eta ondorioz, inguruko itsasoena eta lurrena ere bai.

HIESa duten pertsonen bikotekideak babestu nahian

AEBetan egindako ikerketa baten arabera, antiretrobiralak hartzeak %96 txikitu dezake, bikotekideetako bat seropositi-boa denean, beste kidea kutsa-tzeko arriskua. 1.800 bikotere-kin egindako probek oso emaitza argiak eta itxaropen-tsuak izan dituzte.

<http://ttiki.com/27744> (Frantsesez)

Metanoa lehengai egonkor bihurtu dute

Espainiako eta Frantziako hainbat unibertsitatek meta-noa beste substantzia egonko-rrago bat bihurtzea lortu dute. Ondorioz industria kimikoan berez ezegonkorra den meta-noa erabiltzerik izango dute.

<http://ttiki.com/27745> (Gaztelaniaz)

Gune urtua daukaten asteroideak?

Mexikon eroritako asteroide ezagun baten arrastoak aztertu dituzte eta, ondorioztatu dute-nez, zalantzan jarri behar dira asteroideei buruz genituen usteak, hau da, asteroideak harri eta hautsez osatutako nahasketa hutsa direla. Antza denez, aztertutako asteroideak bazuen tamaina nahikoa urtu-tako gunea edukitzeko bere baitan, Lurra bezala.

<http://ttiki.com/27746> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16